

OVIDIOREN

HEROIDES. LIBRI XIII-XV; XVII

TESTUAREN EUSKARAZKO ITZULPENA ETA OHARRAK

Iñigo Urrestarazu Porta

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

2015-2016

Zuzendaria: Gidor Bilbao Telletxea (Ikasketa Klasikoak Saila)

Laburpena

Honako lan honen helburua Ovidioren *Heroides* liburuko XIII, XIV, XV eta XVII. gutunak euskaratzea izan da. Lan praktikoa izan da, eta lanaren funtsa itzulpena bera da. Irakurle kultuei zuzenduta dago itzulpena, eta oin-ohar argigarriak txertatu ditut, irakurleek Ovidiok egiten dituen erreferentziak hobe uler ditzaten eta, horrela, itzulpenaz gehiago goza dezaten.

Lehenik eta behin, Ovidioren bizitzaren eta *Heroides* liburuaren daturik nabarmenenak azaldu ditut lanean, idazlea eta lana bere testuinguruan kokatzeko. Halaber, Ovidioren *Heroides* liburuaren hainbat alderdi eztabaidatu dira, hala nola estilo berritzailea (gutunak emakumeen ikuspuntutik daude idatzita) eta gutun guztien egiletasuna. Horregatik, interesgarria iruditu zait horiei tarte txiki bat eskaintzea honako lan honen bereizgarriez jabetu ahal izateko.

Ondoren, testua itzuli aurretik hartu behar izan ditudan zenbait erabaki eztabaidatu ditut. Batetik, Ovidioren *Heroides* latinez dago idatzita, eta nik ez dut latinetik zuzenean itzulpen bat egiteko latinaren ezagutza maila nahikorik. Horregatik, zubi-testuetara jo dut. Batez ere, gaztelaniazko itzulpen bat izan dut eredu, baina gaztelaniazko beste bi ere aurrean izan ditut beti. Gainera, frantsesezko eta ingelesezko bertsiio bana izan ditut, aurrekoek ñabarduraren bat argitu ezin zidaten kasuetarako.

Bestetik, Ovidioren lan hau neurtitzetan dago idatzita, baina halabeharrez poesiaz itzuli behar da? Neurtitzez itzultzeak zailtasun handiagoak sortzen ditu, eta tutorearen gomendioari eta zubi-testuen erduei jarraituz, hitz lauz itzultzea erabaki nuen, aurrerago azalduko dudan moduan.

Esan berri dut ere, itzulpena irakurle kultuei zuzenduta dagoela. Hala da, baina oin-ohar ugari daude, testuak kultura grekolatindarrari erreferentzia asko egiten dizkiolako eta horren ezagutza sakona eskatzen duelako. Oin-oharrekin, erreferentzia horiek argitzen saiatu naiz, itzulpena ahalik eta atsegina egiteko.

Jarraian, itzultzean izan ditudan zenbait zailtasun eta zalantza azaldu ditut. Askotariko zalantzak izan ditut, eta esanguratsuenak ekartzen saiatu naiz. Uste dut horien bitartez

ikus daitekeela nola itzuli dudan. Nire ustez, gutunen edukia eta muina gorde dut, baina, forman, euskaraz atsegina eta irakurterraza den estiloa bilatzen saiatu naiz.

Bukaeran, bibliografia erantsi dut.

Aurkibidea

Sarrera	5
Ovidio eta bere lanak	5
<i>Heroides</i>	6
Itzulpen-prozesua.....	7
Itzulpenaren zailtasun nagusiak	8
Itzulpenak.....	10
XIII: Laodamiak Protesilaori	10
XIV: Hipermesthak Lintzeori	15
XV: Safok Faoni	19
XVII: Helenak Parisi.....	24
Bibliografia	31

Sarrera

Ovidio eta bere lanak

Publio Ovidio Nason K.a. 43. urtean jaio zen Sulmonan (Pelignia, Italia), familia aberats baten baitan, zaldun-herronkakoa, hain zuzen. Erromako Errepublikaren bigarren gerra zibilean jaio zen, eta urte horretan bertan Zizeron hil zuten. Aitak Ovidio eta anaia Erromara bidali zituen erretorika ikastera, baina, hasiera-hasieratik argi utzi zuen bere zaletasuna poesia zela, eta 18 urterekin jada poesia-errezitalak eskaintzen omen zituen. Greziara egin zuen ikasketa-bidaia Makrorekin, laguna eta poesiagilea. Erromara itzuli zenean, anaia hilda zegoen, eta politikagintzan beste saiakera bat egin zuen. Ez zuen luze iraun, eta poesiagintzara itzuli zen laster, Mesala Korbinoren taldera. Hark lehenengo argitalpenetan lagundu zion. Ovidio hirutan ezkondu zen, baina, azkeneko emaztearekin, azken urteetako harremanak gutun bidezkoa izan behar izan zuen, K.o. 9. urtean erbesteratua izan zelako. Tomisen (egungo Constanza, Errumania) hil zen, erbesteratua, K.o. 17. urtean.

Garaiko poeta ospetsuekin izan zuen harremana, hala nola, Galo, Propertzio, Horazio eta Tibulorekin. Hasierako garai haietan, maitasun-gaiak landu zituen nagusiki. Ordukoa da *Amores* lana. Ovidio maitasun-elegiaren aitzindarietakoa izan zen.

K.o. 1. urtetik aurrera, gutxi gorabehera, trantsizioa egin zuen maitasun-poesiatik serioagotzat har daitekeen poesiara. *Jai-egunak* eta *Metamorfosiak* dira horren erakusgarri, eta azken horretan elegia utzi eta epika landu zuen. K.o. 9. urtean, Errumaniara erbesteratu zuen Augustok. Garai hartan idatzi zituen lanetan, Erroma uzteak sortzen zion herrimina eta tristura antzeman daitezke, adibidez, *Tristia* eta *Epistulae Ex Ponto* lanetan. Azken urteetan, *Ibis*, *Haliētutica* eta *Nux* idatzi zituen, baina ez ditugu osorik jaso.

Hona hemen Ovidioren lanak hurrenkera kronologikoan:

- *Amores* (Amodioak)
- *Medea*: galdutako tragedia
- *Heroides* (Heroienak)
- *Ars amatoria* (Maitasun-ikasbidea)
- *Remedia amoris* (Maitasun-sendabidea)
- *Medicamina faciei femineae* (Eme-begitartearentzako sendagaiak)

- *Metamorphoses* (Metamorfosiak)
- *Fasti* (Jai-egunak)
- *Tristia* (Saminak)
- *Espistulae Ex Ponto* (Gutunak Pontotik)
- *Ibis*
- *Halieutica*
- *Nux* (Intxaurrondoak)

Heroides

Heroides liburuko poemak mitologiako emakumeek urrun dauden senar eta maitaleei bidalitako gutunak dira (Bilbao, 2002: 177). Esan dut Ovidio erretorika ikasten ibili zela, eta gutun horiek bertan egiten zituzten rol-ariketen antzera daude idatzita. Emakume mitologikoen irudi berria eskaintzen dute, benetako gizaki bihurtzen dituzte.

Lan horrek berrikuntza bat suposatu zuen: batetik, literatura latindarrean elegia-gutunak ia landu gabe zeudelako; bestetik, saminduta dauden emakumeen ikuspuntutik idatzita daudelako. Maitasuna da gutun guztien gaia, ñabardurak gorabehera. Hortaz, esan daiteke hein batean antzekoak direla, baina argi dago pertsonaia bakoitzak maitasun hori bere modura sentitzen duela, eta hori maisutasunez islatzen du Ovidiok.

Hala ere, lan horren hainbat alderdi eztabaidatuak izan dira. Batetik, *Heroides* izena ez omen zuen Ovidiok berak erabili, baizik eta *Epistulae*, eta beste aldaera batzuk ere jaso ditu: *Liber epistularum*, *Liber Heroidum* eta *Epistulae Heroidum*, besteak beste. Bestetik, ez da ziurra gaur egun ditugun gutun guztiak Ovidiok idatzi zituenik. Erdi Aroan, Ovidioren lanak asko hedatu ziren, eta imitazio eta faltsifikazio asko agertu ziren. Zalantzatan dagoen horietako bat nik itzuli dudana XV. gutuna da, Safok Faoni bidalitakoa. Azkenik, kronologia ere eztabaidatu da. *Heroidak*, uste denez, ez ziren denak batera argitaratu, baizik eta zenbait bloketan. Sinpleak bikoitzak baino beranduago idatzi zituen, eta idazlearen heldutasuna antzeman daiteke horietan. Dena dela ere, nik ezin diot horri tarte handiagorik eskaini, eta alderdi horien inguruan informazio gehiago nahi duenak Moya del Baño (1986) eta Cristóbal (1994) lanetara jo dezake, haiek luzeago jorratu zuten eta.

Itzulpen-prozesua

Atal honetan, itzultzen hasi aurretik kontuan hartu ditudan zenbait alderdi azalduko ditut, baina, aurretik, esan behar dut honako lan hau ez dela “ohiko” Gradu Amaierako Lantzat hartu, ez baita ikerketa-lana. Honako lan hau itzulpen-lana da, eta, horregatik, ezin dio “ohiko” lanen egiturari eutsi. Hau da, lanaren emaitza ez dira ondorio jakin batzuk, baizik eta itzulpena eta horren inguruko hausnarketa. Horrez gain, esan behar dut karaktere kopurua gainditu dudala, baina kontuan izan behar da itzulpenak bakarrik eskatzen den karaktere kopurua betetzen duela.

Lehenik eta behin, itzulpena nori dagoen zuzenduta erabaki behar nuen. Ovidioren *Heroides* poesia-lana da, eta amodioa lantzen du mitologia grekoko heroien bidez. Horregatik, irakurle kultuei zuzenduta egon behar duela iruditzen zait. Alabaina, testuak mundu klasikoa eta mitologia grekoa ongi ezagutzea eskatzen du, eta hori testuaz gozatzeko oztopoa izan ez dadin, oin-oharrak txertatu ditut, Ovidiok egiten dituen erreferentzia horiek azaltzeko, eta gutun bakoitza bere testuinguruan kokatzeko.

Bestalde, *Heroides* latinez dago idatzita, eta nik ez dakit latin askorik. Hortaz, zubi-testuetara jo dut. Vicente Cristóbalen itzulpena (Cristóbal, 1994) izan da nire iturri nagusia, gaztelaniaz, hori atsegin bainuen gehien irakurtzean. Hala ere, ez da aurrean izan dudan testu bakarra izan. Francisca Moyaren (Moya del Baño, 1986) eta Ana Pérez Vegaren (Pérez Vega, 1994) itzulpenak ere kontuan hartu ditut uneoro, biak ala biak gaztelaniaz, eta paragrafoen banaketa egiteko lehenengoan oinarritu naiz gehienetan. Frantsesezko (Bornecque, 1965) eta ingelesezko (Showerman, 1977) itzulpen banatara ere jo dut noiz edo noiz, ñabarduraren bat argitu behar nuenean. Horrela, nahiz eta Ovidioren hitzak zuzenean ez irakurri, bertsio guztien artean, Ovidiorengandik gertu legokeen itzulpena egiten saiatu naiz.

Hartu beharreko beste erabakietako bat prosaz edo poesiaz itzultzea izan da. Ovidioren lana neurtitzetan dago idatzita, baina erabili ditudan zubi-testu guztiak prosaz daude. Gehienez ere, Moya del Bañok (1986) markatu du bere itzulpenean nondik nora doan Ovidioren bertso-lerro bakoitza, prosaz idatzita egon arren. Nik ere hauen bide beretik jarraitzea erabaki dut. Batik bat, euskal literaturaren tradizioan eredu finkorik ez dudalako aurkitu, eta horrek lana asko zailduko lukeelako, errimarik egon ez arren, bertso-lerroak neurtu beharko nituzkeelako. Beraz, irakurleak ez du poesiarik

irakurriko, eta horrek jatorrizko idatzietatik urrunduko du. Hala ere, zubi-testuen edukia ongi gorde dut, eta irakurleak gozatuko duelakoan nago.

Itzulpenaren zailtasun nagusiak

Jarraian, itzultzean izan ditudan zenbait zailtasun azalduko ditut. Hasteko, gutun guztietan izan dudana zalantza bat azaldu nahi dut. Txikikeria iruditu dezake, baina izen bereziek arazo asko sortu dizkidate, izan antroponimoak edo toponimoak. Izan ere, askotan, begi aurrean nituen bertsiok ez zetozen bat. *Filaka* bezala idatzi dudana, esaterako, modu batean zegoen bertsiok bakoitzean: *Fílaca* (Moya del Baño, 1986: 95), *Filo* (Pérez Vega, 1994: 117) eta *Filos* (Cristóbal, 1994: 181). Halakoetan, jakina, Euskaltzaindiaren 76. araua (1997) *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko erabakiei buruzko erabakia* eta hor agertzen diren irizpideak erabili ditut.

Bestalde, noiz edo noiz, hitzen bat gehitzera edo esplizitu egitera behartuta ikusi dut nire burua, ulermena errazteko eta jatorrizkoaren informazio nabarmena ez galtzeko. Gehikuntza horietan, batzuetan, jatorrizkoan baino zehatzago jokatu dut, eta jatorrizkoaren hiponimoren bat erabili dut. Honako adibide hau oso argigarria iruditzen zait:

Troadas invideo (Heroides XIII, 135)

‘*Envidio a las troyanas*’ (Cristóbal, 1994:186)

‘*Tengo envidia de las troyanas*’ (Moya 1986: 100)

‘*Troiako emazteei inbidia diet*’ (Urrestarazu, 2016)

Bestetik, jatorrizko esaldi asko luzeak eta korapilatsuak ziren. Ez beti, baina horiek zatitzeko joera handia izan dut. Hala ere, erritmoari eusteko gai izan naizela uste dut. Hona hemen adibide pare bat:

Troadas invideo, quae si lacrimosa suorum

funera conspiciente, nec procul hostis erit;

Ipsa suis manibus forti nova nupta marito

imponet galeam barbaraque arma dabit. (Heroides XIII, 134-138)

‘*Envidio a las troyanas, que, aunque tendrán que ver las tristes exequias de los suyos y no tendrán lejos al enemigo; al menos la casada pondrá a*

su aguerrida esposo con sus propias manos el yelmo, y le dará armas troyanas’ (Pérez Vega, 1994: 120)

‘*Troiako emazteei inbidia diet, nahiz eta beren gizonen hiletak ikusi beharko dituzten eta etsaiak hurbil izango dituzten. Inbidia diet, ezkonberriak senar ausartari bere eskuekin kaskoa jarriko diolako eta arma dardanotarrak emango dizkiolako.*’ (Urrestarazu, 2016)

*Per reditus corpusque tuum, mea numina, iuro
perque pares animi coniugiiue faces
perque, quod tu videam canis albere capillis,
quod tecum possis ipse referre, caput,
me tibi venturam comitem, quocumque vocaris,
sive —quod he! timeo, sive superstes eris. (Heroides XIII, 157-162)*

‘*Por tu regreso y por tu cuerpo, que son dioses para mí, por la antorcha que arde en mi alma y por la que alumbró mi boda, iguales entre sí, y por tu cabeza, que ojalá puedas traer contigo para que la vea yo blanquear con canas, te juro que iré en tu seguimiento dondequiera me llames, ya si ocurre, ¡ay!, lo que temo, ya si llegas a sobrevivir.*’ (Cristóbal, 1994: 187)

‘*Zin egiten dut zure itzuleraz eta zure gorputzaz, niretzat jainkoak dira eta; zin egiten dut ariman sutan dudan zuziaz eta ezkontza argitu zuen zuziaz; eta zure buruaz, itzultzen eta urdintzen ikusi nahiko nukeenaz, zin egiten dut; zin egiten dut, deika edonon zaudela ere, zure bila joango naizela, hala —ai ama!— beldurtzen nauen hori gertatuko balitz, nola bizirik ateratzen bazara.*’ (Urrestarazu, 2016)

Maila lexikoan ere zalantzak izan ditut, eta nabarmenenak aipatuko ditut. *Cómplice* hitza itzultzeko, bi hitzen artean egon nintzen zalantzatan: *lagun* eta *sopikun*. Egungo testuen corpusak kontsultatuez gero ikusten denez, *sopikun* ez da hain erabilia, eta, batez ere, zuzenbideari mugatzen zaio. *Lagun* hitzak, ordea, esanahi ugari ditu, eta ez nuen nahi zalantzak sor zitzakeen hitzik. Horregatik, *sopikuni* heldu nion.

Bestalde, *dueña* itzultzeko orduan ere arazoak izan ditut. Nire lehenengo aukera *jabe* izan zen, baina ez zitzaidan egokiegia iruditzen. Horregatik, tutorearen gomendioari kasu egin nion eta *ugazabandre* erabili nuen.

Hala ere, behin behintzat hitzekin jolasteko aukera polita izan nuen:

thalamos, sua busta (Heroides XIV, 31)

‘el tálamo, su túmulo’ (Cristóbal, 1994: 191)

‘a los tálamos, ¡sus sepulcros!’ (Moya, 1986: 103)

‘ezkon-ohé, hil-ohé’ (Urrestarazu, 2016)

Hortaz, uste dut adibide horiekin ikus daitekeela, orokorrean, nola itzuli dudan; edukiari lotuta, baina testua irakurterraza eta atsegina egiten duten formak bilatuz.

Itzulpenak

XIII: Laodamiak Protesilaori¹

Laodamia hemoniarrek bere hemoniar senarrari goraintziak ematen dizkio, eta, amoros, dagoen tokira hel dakizkion nahi du.

Zurumurruek diote Auliden² zaudela zain, haizeak atxikitzen baitzaitu. Ai ene!, non zegoen haize hori nire albotik urruntzen zinenean? Orduan egin behar zieten itsasoek aurre zuen arraunei. Hura zen ekaitzentzako une egokia: senarrari musu eta aholku gehiago eman ahal izango nizkion, oraindik ere esateko gauza asko nituen eta. Bat-batean eraman zintuzteten hemendik, eta haizeak —marinelek, eta ez nik, desiratuak— zure belak astintzen zituen. Haizea marinelen aldekoa zen, ez ordea maiteminduaren aldekoa; zure besarkadak kendu zizkidaten, Protesilao, eta mingainak ezin izan zituen ematen zizkizun aholkuak bukatu; nekez izan nintzen “agur!” triste hura esateko gai. Ipar-haizeak jo zuen eta belak harrotu zituen bortizki. Ene Protesilao maitea urrun eraman zuen.

¹ Honako gutun hau Laodamiak Protesilaori bidaltzen dio. Ezkondu eta berehala, Protesilaok Troiako gerrara egin behar izan zuen, eta Laodamia nahigabetuta gelditu zen. Bere beldurrak kontatzen dizkio, eta kontuz ibiltzeko eskatzen dio. Legendaren arabera, Protesilao gerra hartan hil zen lehenengo greziarra izan zen, eta Ovidiok hainbat unetan horrekin jolasten du. Azkenean, Laodamiak, Protesilaoren heriotzaren berri izan zuenean, bere buruaz beste egin zuen, gutunean iragartzen duen moduan.

² Beoziako portua. Bertatik abiatu zen ontzidi greziarra Troiarantz, han haizerik ez zegoelako luzaro geldituta egon eta gero.

Zu ikusteak atsegina sortu zidan, ikusi ahal izan zintudan bitartean, eta uneoro jarraitu nituen zure begiak nireekin. Ezin zintudanean ikusi, zure belak ikusten nituen oraindik, eta luze egin nien so. Baina, ezin zintuztedanean ez zu ezta zure bela iheskorrak antzeman, itsaso hutsa baino ezin nuen ikusi; baita argiak ere ihes egin zidan, eta, ilunpetan galduta, akituta, belaunak makurtu eta lurrera erori nintzela diote. Nekez suspertu ahal izan ninduten ur hotzarekin Ifiklo³ aitagarrebak, Akasto⁴ agureak, ene ama nahigabetuak. Eginbehar gupidatsu baina alferrikakoa bete zuten nirekin, eta sumintzen nau hil ez izanak, zoritxarrekoa ni. Senera itzuli nintzenean, oinazeak ere itzuli zitzaizkidan; maitasun zilegiak hozka egin dio nire bular garbiari.

Ez naiz ileak orrazteaz arduratzen, eta ez dut gorputza urrezko jantziekin atontzea atsegin. Batetik bestera ibiltzen naiz zoroaldiak eramaten nauen bidetik, adarbikoak⁵ bere aihenezko makilarekin ukitzen dituenak ibiltzen diren antzera. Filakako⁶ andreak etortzen dira eta oihu egiten didate: “Jantzi, Laodamia, zeure erregina-mantua!” Nolatan eramango ditut ba nik purpuraz tindatutako arropak, bera Ilioneko harresien oinean gudan ari den bitartean? Nolatan orraztuko ditut nik ba ileak, berari kaskoak burua estutzen dion bitartean? Nolatan eramango ditut arropa berriak, berak arma astunak eraman behar dituen bitartean? Esango dute nire zabarkeriarekin zure nekeak antzeratu ditudala, besterik ezin dut egin eta, eta goibel eman ditudala guda-garai hauek.

Zorigaiztokoa zu, Priamoren semea,⁷ ederra oso, zure herriaren galbide; apopilo txarra izan zinen moduan,⁸ izan zaitez arerio eskasa! Zergatik atsegin zenuen Tenaroko emaztearen aurpegia?⁹ Zergatik atsegin zuen hark zurea? Oxala hala izan ez balitz! Zu, Menelao, gehiegi ahalegintzen zara bahitutakoarengatik. Ai ene! Zenbatek egingo dute negar zure mendekuarengatik!

Zuei, jainko-jainkosei, arren eskatzen dizuet nigandik zorigaiztoko augurio hau uxatzeko, eta nire senarrak eskain diezazkiola armak Jupiterri, itzuleraren babesleari. Baina beldurtu egiten naiz, gerra zitala burura etortzen zaidan bakoitzean; malkoak

³ Protesilaoren aita, Filakoren semea eta Deukalionen odolekoa.

⁴ Laodamiaren aita, Peliasen semea.

⁵ Bako, batzuetan bi adarrekin irudikatzen baita.

⁶ Tesaliako hiria, Iolkotik gertu zegoena. Ziurrenik, Tesaliako emakume guztiei egiten die erreferentzia.

⁷ Paris.

⁸ Bere anfitrioiak bahitu zuelako, Helena.

⁹ Helena. Tenaro, bestalde, Lakonia edo Lazedemoniako muino bat zen.

isurtzen zaizkit masailetan behera, eguzkiak urtutako elurraren moduan. Ilión eta Tenedos, Simunte, Janto edota Ida;¹⁰ izen horiek entzute soilarekin ikarak hartzen nau.

Apopilóa ez zatekeen bahitzera ausartuko, bere burua defendatzeko aukera izango ez balu: bere indarren jakitun zen. Diotenez, ikusgarria zen etorri zenean: urre askorekin eta Frigiako aberastasunak gainean eramanez, aberats itsasontzietan eta gizonetan, gerra basatia egiteko baliabideetan; eta, zenbaterainoko aberastasunak utzi zituen etxean? Horrek, susmatzen dut, garaitu zintuen zu, Ledaren alaba eta Bikien arreba;¹¹ eta uste dut danaotarrentzat zorigaiztokoa izan daitekeela hori.

Hektor delako baten beldur naiz; Hektorrek bere esku odolzaleekin gerra latzak eragiten zituela esan zuen Parisek. Maite banauzu, argi ibili Hektor horrekin, edonor dela ere.¹² hartu gogoan bere izena eta ez ahaztu! Hektorrengandik alde egiten duzunean, izan bestek gogoan, hura bezalako asko baitaude han. Eta, borrokara zoazen bakoitzean, saiatu honako hau esaten: “Laodamiak agindu dit neure burua zaintzeko, beragatik”.

Jainkoek gura badute gudari argostarrek menderatzea, mendera dezatela zuk zauririk jaso gabe. Borrokatu dezala Menelaok; berak eraso ditzala aurrean dituen arerioak, Parisi lapurtzeko Parisek aurretik lapurtu ziona. Joan dadila haren aurka eta armekin garaitu dezala, arrazoietan ere garaitzen baitu. Etsaien artean bilatu behar du senar hark emaztea. Zure helburua bestelakoa da: zuk bizirauteko borrokatu; zeure ugazabandrearen beso garbietara itzuli ahal izateko.

Utz ezazue zuek, Dardanotarrek, bera bakarrik hainbeste etsairen artean, gorputz hark nire odola isuri ez dezan. Ez da ezpata eskuan aurrera egiten duen horietakoa, ezta bularraldea oldarkor arerioei eskaintzen dietetakoa. Borrokan baino gogotsuago jardun ohi du maitasunean. Besteek egin dezatela gerra, eta Protesilaok maita dezala.

Orain aitortzen dut: itzultzeko esan nahi nizun, hala nahi nuen; baina mingaina gelditu zitzaidan, augurio txarren beldur. Aitaren etxetik Troiarantz egin behar zenuenean, estropezu egin zenuen; bai aieru txarra! Hori ikustean, adia egin nuen, eta nire artean, ahapeka esan nuen: “Arren eskatzen dut seinalea izan dadila; ene senarra itzuliko delako seinalea!” Orain kontatzen dizut hori, gudaldian ausartegia izan ez zaitez.

¹⁰ Troiako tokien izenak: Ilión, hiriburua; Tenedos, Troia aurreko uhartea; Simunte eta Janto, Troiako ibaiak; Ida, mendilerroa.

¹¹ Helenaren anaiak, Kastor eta Polux.

¹² Gertatuko denari aurre hartzen dio Ovidiok. Izan ere, Hektorrek hilko du Protesilao.

Eramanarazi haizeari ene ikarak! Zoritxarrak aukeratuko du Troiako lurra zapalduko duen lehenengo danaotar ezezaguna.¹³ Zorigaiztokoa senarragatik inork baino lehenago negar egingo duena!¹⁴ Jainko-jainkosen nahia izan dadila zu hain presatsua ez izatea! Mila itsasontzien artean, izan dadila zurea azkena, eta azkena izanik, nekatutako olatuetan ibil dadila. Honako hau ohartarazten dizut ere: izan zaitez zure ontzitik ateratzen azkena! Hura ez da zure aitaren lurraldea eta ez zaitez larritu. Itzultzean, eragin itsasontzia belaz eta arraunez, eta orduan gelditu abiada bizkorra zeure hondartzan.

Febo ezkutatu edo goieneko unean egon, nigana etortzen zara, ene oinazeen jatorri, egunez eta gauez. Gauez, ordea, egunez baino gehiago. Atsegina da gaua lepoa maitalearen besoaren gainean duten neskatxentzat. Nire ohantze bakartian, amets engainagarriek asaldatzen naute; benetakoak ez ditudan bitartean, gezurrezko atseginekin gozatzen dut.

Baina, zergatik datorkit zurbil zeure irudia? Zergatik iristen zait zuk esandako auhen luzea? Aztoratuta esnatzen naiz, gaueko espirituei erregutzen diet; Tesaliako aldare orok dauka ene oparien kea: intsentsua eskaintzen diet, eta gainetik malkoek bustitzen dutenean berriz jalgitzen da sua, su-garra ardoa botatzen zaionean goratzen den moduan.

Noiz izango zaitut, itzulita, ene beso kartsuen artean? Noiz galduko dut, pozez akituta, konortea? Noiz helduko da nire ohean ondo-ondoan borrokak kontatzeko momentua? Eta kontatzen dizkidazun bitartean, entzutea atsegina egingo bazait ere, musu asko emango dizkizut eta asko emango dizkidazu. Egoki da musu artean kontalariaren hitzak gelditzea, eta mingainak, etenaldi atsegina eta gero, gogotsuago jarraitzen du istorioa kontatzen.

Baina, Troiaz akordatzen naizenean eta itsasoko haizeez akordatzen naizenean, larritzen nauen beldur batek menderatzen du ene itxaropen alai. Itsasontziak abiatzea eragozten duten haizeek arduratzen naute ere: kontra dituzuen uretara abiatzen zarete. Nork itzuli nahiko luke aberrira, haizeak galarazten badu? Eta orain, itsasoak eragozten duela, belak hedatzen dituzue aberritik urruntzeko.

¹³ Berriro ere, Ovidiok gertatuko denari aurre hartzen dio. Protesilao bera izan zen Troiako lurra zapaltzen lehena.

¹⁴ Eta paradoxak jarraitzen du, Laodamia izango delako negar egiten duen lehenengoa.

Neptunok berak oztopatzen du bere hirirako bidea.¹⁵ Nora abiatzen zarete hain arin? Itzuli denak zeuen etxeetara! Danaotarrak, nora abiatzen zarete? Entzun haizeen debekua! Atxikitze hau ez da ausazkoa, baizik eta gurari jainkotiarra. Eskatzen al du adulterioz gile lotsagabe batek halako gudurik? Ontzi argostarrak, eman buelta zeuen belei, oraindik hori egitea baduzue eta. Zertan ari naiz, baina? Itzultzeko eskatzen? Urrundu daitezela apeu-augurioak, eta haize leunak izan ditzazuela itsaso barearen lagun!

Troiako emazteei inbidia diet, nahiz eta beren gizonen hiletak ikusi beharko dituzten eta etsaiak hurbil izango dituzten. Inbidia diet, ezkonberriak senar ausartari bere eskuekin kaskoa jarriko diolako eta arma dardanotarrak emango dizkiolako. Armak emango dizkio, eta ematen dizkion bitartean, musuak jasoko ditu, bientzat atseginak izango diren maitasun-adierazgarriak. Eta senarra atera lagunduko du, eta honako hau esanez itzultzeko eskatuko dio: “ekarri bueltan arma hauek, Jupiterri eskaintzeko”. Hark, ugazabandrearen azken aginduak berarekin eramanez, kontuz borrokatuko du eta familiaz arduratuko da. Itzultzean, emazteak armagabetuko du, ezkutua eta kaskoa kenduko dizkio, eta kutunaren gorputz nekatua hartuko du magalean.

Emakumeok zalantzatan gaude; gerta daitekeen guztia gertatu dela pentsatzera bultzatzen gaitu ikara estugarriak.

Hala ere, urruneko lur batean, armak eskuan, gudari zauden bitartean, zure aurpegia gogoratzen didan argizarizko irudia daukat.¹⁶ Hari esaten dizkiot hitz samurrak, hari zuretzat diren hitzak, hari ematen dizkiot besarkadak. Sinetsi: irudi bat dirudiena baino askoz gehiago da; ahotsa gehitu eta Protesilao bera izango da. Etengabe begiratzen diot, magalean hartzen dut ene benetako senarra izango balitz bezala, eta, erantzun ahal izango balu bezala, nire kexak agertzen dizkiot.

Zin egiten dut zure itzuleraz eta zure gorputzaz, niretzat jainkoak dira eta; zin egiten dut ariman sutan dudan zuziaz¹⁷ eta ezkontza argitu zuen zuziaz; eta zure buruaz, itzultzen eta urdintzen ikusi nahiko nukeenaz, zin egiten dut; zin egiten dut, deika edonon

¹⁵ Neptunok eta Apolok eraiki zituzten Troiako harresiak.

¹⁶ Hainbat iturriren arabera, Laodamiak bihotza arintzen zuen Protesilaoren irudi batekin, Protesilao hilda zegoenean. Hala ere, Ovidiok esaten du Laodamia irudi hori erabiltzen hasi zela, Protesilao gerrara joan zenean.

¹⁷ Maitasunaren irudia.

zaudela ere, zure bila joango naizela, hala —ai ama!— beldurtzen nauen hori gertatuko balitz, nola bizirik ateratzen bazara¹⁸.

Gutuna agindu txiki batekin bukatuko dut, azkenean: nitaz arduratzen bazara, arduratu zeure buruaz.

XIV: Hipermesthak Lintzeori¹⁹

Hipermesthak duela gutxi arte asko zineten anaietatik bizirik dirauen bakarrari bidaltzen dio gutun hau; besteak lurrian dautza, beren emazteen krimenez hilik.

Nire etxean nago preso, ezin atera, eta kate astunekin lotuta. Zigorra jaso dut, errukiorra izateagatik. Gatibu nago ezpata lepora hurbiltzeko beldurra izan nuelako; gorespenak jasoko nituzkeen, krimena egitera ausartu izan banintz.

Nahiago dut gatibu egotea, aitari modu horretan atsegina ematea baino. Ez zait damutzen eskuetan odolik ez izatea. Orain, aitak profanatu ez dudan suarekin kiskal nauke; errituak argitzen zituen zuziak aurpegian jar dizkidake; asmo txarrekin eman zidan ezpatarekin lepoa moztu didake; ezkonberritan hartuko nau ni senarra hartu ez zuen heriotzak; baina, hala eta guztiz ere, ez du lortuko, hilzorian nagoela ere, nik “damu naiz” esatea. Errukior izateaz damu dena ez da errukiorra. Damu daitezela beren krimenaz Danao²⁰ eta nire ahizpa ankerrak. Sentimendu hori ekintza doilorren ondorioz sortu ohi da.

Odolez bustitako gauaz oroitzean nire bihotza izutzen da, eta bat-bateko dardarak eskuin eskuaren hezurak geldiarazten dizkit. Pentsa dezakezu nire senarra hiltzeko gai naizela, eta egin ez dudan hilketa batez idazteak beldurra eragiten dit.

Baina, hala ere, saiatu egingo naiz. Ilunabarrak lurra hartu berria zuen: egunaren azkeneko ordua zen eta gauaren aurrea. Inakoren²¹ ondorengoak Pelasgoren jauregi handian zehar gidatu gintuzten, eta aitagarrebak berak hartu gintuen errain armatuak. Urrez jantzitako argi-zuziak zeuden nonahi; intsentsu fedegabea botatzen zen

¹⁸ Laodamiak, senarra hil zela jakin zuenean, bere buruaz beste egin zuen, hain zuzen.

¹⁹ Gutuna Danaoren alaben eta Egiptoren (Danaoren anaia) semeen ezkontzaren ingurukoa da. Danao zen legezko oinordekoa, baina, Danaoren eta Egiptoren aita hil zenean, Egiptok erresumaren zati bat berarentzat hartu zuen. Ondorioz, Danaoren 50 alaben eta Egiptoren 50 semeen arteko ezkontza antolatu zuten. Eztei-gauean, ordea, Danaoren alabek senarrak hil zituzten; denek Hipermesthak Lintzeo izan ezik. Aitak giltzapetu egin zuen, eta gatibu zegoen une horretan kokatzen da gutuna.

²⁰ Hipermestra eta haren berrogeita bederatzi ahizpen aita; Egipto zen haren anaia, eta Egipto Lintzeoren eta haren berrogeita bederatzi anaien aita zen.

²¹ Inako ibaia; argostarren arbasoetan antzinakoena; Inako Ioren aita izan zen; Ip, Epaforen ama; Epafu, Libiaren aita; Libia, Beloren ama; Belo, Danaoren aita; eta Danao, Hipermestraren aita.

aldareetan, baina suak ez zuen erre nahi. Jendetzak oihu egiten zuen: “Himen, Himeneo!”.²² Baina hark²³ deitzen diotenengandik ihes egiten du. Baita Jupiterren emazteak berak ere alde egin zuen bere²⁴ hiritik.

Honatx, senar ezkonberriak ezkon-oheetara eraman zituzten. Ardoak erasanda, zabuka zebiltzan, jarraigoaren oihuek laguntzen zituzten, eta ile hezeen inguruan berriki moztutako loreak zituzten. Horrela eraman zituzten, poz-pozik, ezkon-oheetara; ezkon-ohe, hil-ohe. Eta hileta baterako izan zitezkeen lastairetan etzan ziren. Janariak, ardoak eta logurak beren lana egin zuten, lo zeuden, eta erabateko isiltasunak Argos lasaia menderatzen zuen. Nire inguruan, hiltzear daudenen auhenak entzuten nituela imajinatzen nuen; hala zen, benetan entzuten nituen; eta beldurra sortzen zidan hura gertatzen ari zen. Odolak alde egin zidan; beroak nire gogoa eta gorputza utzi zituen, eta, izoztuta, lehen aldiz erabiltzen ari nintzen ohean etzan nintzen.

Dar-dar egiten nuen, galburu meheak haize leunak putz egiten dienean mugitzen diren moduan, brisa hotzak makalen hostoak astintzen dituen moduan; horrela edo are gehiago egin nuen dar-dar. Zu, ordea, lo zeunden, eman nizun ardoak loa eragiten baitzuen. Ene aitaren agindu bortitzek nire beldurrak uxatu zituzten. Altxatu nintzen, eta esku dardaratiekin hartu nuen arma. Ez dizut gezurrik esango. Hiru aldiz goratu nuen ezpata zorrotza, eta hiru aldiz erori zitzaizkidan helburu ankerrekin goraturiko besoak. Azkenik, aitaren erabateko beldurrak erasanda, zure lepora hurbildu nuen hark emaniko arma. Baina, beldurrak eta errukiak nire ausarkeri bihozgabea geldiarazi zuten, eta nire esku errugabeak uko egin zion aginduak betetzeari.

Purpurazko jantzia hautsi nuen, ileetatik tiratu nuen, eta ia entzun ezin ziren hitz hauek xuxurlatu nituen: “Hipermera, zure aita ankerra da. Bete haren agindua; doala hau ere bere anaiekin... Emakumea naiz, eta dontzeila, samurra izatez eta adinez; nire esku leunek ez dute arma ankerrak eusteko balio... Dena den, tira, lo dagoen bitartean, jarraitu zure ahizpa ausarten bidea; ziur aski denek hil dituzte beren senarrak.

Esku hauek norbait erail ahalko balute, haien jabearen odolak bustiko lituzke. Edo heriotza merezi zuten, osabaren erresumaz jabetzeagatik eta familiaz kanpoko suhiei ematera behartzeagatik? Demagun hiltzea merezi zutela: zer egin dugu guk, ordea? Zer

²² “Zatoz, Himeneo!” deituko balu bezala.

²³ Himeneo jainkoa, gertatuko den krimena aurreikusiz, ez doa deitzen dion jendearengana.

²⁴ Juno, ezkontzaren jainkosa eta Argosko zaindaria; gertatuko den krimena dela eta, alde egin du.

krimen egin dut nik, errukiorra ezin izateko? Zer daukat ikustekorik nik ezpatarekin? Zertarako behar ditu neskabila batek borrokarako armak? Nire eskuentzat egokiagoak dira artilea eta gorua”.

Hori guztia esaten nion nire buruari. Eta kexatzen nintzen bitartean, malkoek hitzak laguntzen zituzten, eta zure gorputzaren gainean isurtzen ziren. Zure beso logaletuekin nire besarkadak bilatu zenituenean, nuen arma zure eskua zauritzeko zorian egon zen.

Eta lozorrotik esnatu zintuzten hitz hauek esan nizkizunerako, aitaren, haren morroien eta egunsentiaren beldur nintzen: “Altxa zaitez, bada, Belida,²⁵ duela gutxi arte asko zineten anaietatik bizirik dirauen bakarra! Gaurko gaua betikoa izango da zuretzat, azkar ibili ezean!”. Ikarak jota altxatu zinen, lozorroaren moteltasun orok ihes egin zizun, eta nire esku lotsatian zegoen armari erreparatu zenion. Zergatik galdetu zenidan, eta hauxe esan nizun: “Ospa egin gauak aukera ematen dizun bitartean, gau ilunak uzten dizun bitartean. Zuk ospa egin, eta ni hemen geldituko naiz!”.

Egunguentia zen, eta Danaok hilda zeuden suhiak zenbatu zituen. Zu baino ez zinen falta sarraskia osatzeko. Ezin zuen onartu suhietako batek heriotzari itzuri izana, eta odol gutxiegi isuri izanaz arranguratu zen. Aitaren oinetatik arrastaka erauzi ninduten, eta ileetatik herrestan eramanez –hau al da nire errukiak merezi duen saria?– espetxean giltzapetu ninduten.

Zalantzarik gabe, Junoren suminak dirau emakumea behi eta behia jainkosa²⁶ bihurtu zen egunetik. Baina, zigor nahikoa da neskaxa samurrak marru egin beharra, eta ordura arte ederra izandakoa Jupiterrek ezin atsegin izatea. Hantxe gelditu zen berriki behi bihurtutakoa bere aita gardenaren ibaiertzean, eta aitaren uretan²⁷ bereak ez ziren adar batzuk ikusi zituen; eta hitz egiten saiatzean, marrua atera zitzaion ahotik; bere itxurak ikaratu zuen, bere ahotsak ikaratu zuen. Zergatik erotzen zara, zorigaiztoko hori? Zergatik harritzen zaitu zure burua uretan ikusteak? Zergatik zenbatzen dituzu zure gorputz berriak dituen hankak? Zu, Jupiter handiaren arreba jeloskor egonarazteko gai zinen etsai ospetsua, orain duzun gose handia asetzen saiatzen zara kimu eta belarrekin; iturburuetatik edaten duzu, eta txundituta begiratzen diozu zure buruari; adar berriekin zure burua zauritzeko beldur zara. Zu duela gutxira arte aberatsa zinen, Jupiterren

²⁵ Lintzeoren eta Hiperemestraren aitona Belo zen, eta Belida hortik eratorria da.

²⁶ Io; Jupiterrek maitatu zuen, eta Junoren bekaizkeriatik babesteko, behi bihurtu zuten, eta ezpara batek jarraitu zuen lurretan eta itsasoetan zehar. Azkenean, Egipton, aurretik zuen itxura berreskuratu zuen.

²⁷ Inako ibaia.

mailakoa izatera hel zintezkeen, eta orain, lur gordinaren gainean etzaten zara biluzik. Itsasoetan, lurraldeetan eta zure senideak diren ibaietan zehar zoaz lasterka; bidea egiten dizute itsasoek, ibaiak eta lurrak. Zergatik egiten duzu ihesi? Zergatik ibiltzen zara noraezean itsaso zabaletan barrena? Ezin izango diozu zure kabuz zure aurpegiari ihesi egin. Inakoren alaba, nora zoaz hain bizkor eta estu? Une berean jarraitu eta ihesi egiten duzu. Zuk gidatzen duzu zeuk bakarrik osatzen duzun jarraigoa; zu zeu zara zuri jarraitzen dizun jarraigoa. Nilo zazpi ahoren bidez isurtzen da itsasora, eta hark kendu dio behi itxura maitale zoroari.

Baina, zergatik kontatu behar ditut niri agure ileurdinek kontatu zizkidaten antzinako gertakizunak? Nire urteek kexatzeko nahikoa zio ematen dizkirate. Aita eta osaba gerran daude; gure erresumatik eta etxetik botatzen gaituzte; urrutiko herrialde batean erbesteratuta gaude.²⁸ Gizon basati hura²⁹ bere kabuz jabetzen da tronuz eta agintemakilaz; jendetza behartsua goaz agure arduratsu baten agindupean. Nire ahizpen eta lehengusuen artean parte ziztrin bat baino ez da geratzen; hildakoengatik eta hiltzaileengatik egiten dut negar, lehengusu bezainbeste ahizpa hil zitzaizkidan eta; batzuek eta besteek jaso ditzatela nire malkoak.

Nik, ordea, oraindik bizirik zaudenez, zigorraren oinazea jasoko dut. Zer gertatuko zaio errudunari, ni laudatu beharreko zerbaitengatik gatibatzen banaute? Lehen senide ugari ginen, eta horien artean ni ehungarrena. Baina, ni, zorigaitzokoa, hilko naiz, eta lehengusu batek bakarrik biziraungo du! Zuk ordea, Lintzeo, lehengusina honi estimurik badiozu, zurekin bihozbera izan den lehengusinari, eta egin nizun oparia duintasunez gordetzen baduzu,³⁰ lagundu iezadazu; edo, bestela, utzi hiltzen; utzi nire gorpua bat-batean egindako sumeta batean, eta ehortzi hezurak, zure malko leialez bustita; hilobian idatzi honako hitz hauek:

“Hipermetra erbesteratua izan zen, eta, bere errukiaren ordain gaizto gisa, berak pairatu zuen lehengusuarengandik urrundu zuen heriotza.”

Idazten jarraitzea nahiko nuke, baina kate astunek eskua nekatu didate eta beldurrak berak indarrak kentzen dizkit.

²⁸ Egiptotik (haien jatorritik) bota eta Argosera erbesteratu zituzten.

²⁹ Egipto, Danaoren anaia.

³⁰ Bizitza, alegia.

XV: Safok Faoni³¹

Egia al da esku maiteminduak idatzitako letra irakurtzean nirea zela igarri zenuela? Ala ez zenukeen jakingo nondik zetorren gutuntxo hau, egilearen Safo izena irakurri ez bazenu?

Agian, zeure buruari galdegin diokezu ea zergatik doazen bertsoak binaka, poesia lirikorako dohain handiagoak ditudanean. Maitasunak malkoak eragiten dizkit, eta malkoek elegia-poemak eskatzen dituzte; ez dator inongo lirarik ene malkoekin bat.³²

Euro-haize menderakaitzek sua kitzikatzean soro emankorrean uztak kiskaltzen diren moduan kiskaltzen naiz. Faon Tifeoren Etna inguruko urrutiko lurretan bizi da aspalditik, eta Etnaren³³ suak bezainbesteko indarra duen beroak menderatzen nau ni. Ez zait otutzen hari tenkatuetara moldatzen den poemarik. Poemak buru arduragabeen egitekoak dira.³⁴ Ez ditut atsegin Pirra, Metimna edo Lesbosko gainontzeko neskatilak. Jada, Anaktoria ez zait erakargarria egiten, ezta Zidro azal-zuria ere; ene begiek ez dute Atis gehiago atsegin, ezta aurretik, ez bekaturik gabe, maitatu nituen beste ehun neskatilak ere. Gizon gaiztoa zara, orain zuk bakarrik duzulako askorena izan zena! Ederra zara, eta maite-jolasetarako adinean zaude; oi! zure edertasunak iruzur egiten die nire begiei! Hartu lira eta buiraka; Apolo bera izango zara denen begietan! Buruan bi adar ateraz gero, Bako izango zara! Eta Febok Dafne maitatu zuen, eta Bakok Knosoko gaztea. Baina ez batak eta ez besteak ez zituzten lirikaren erritmoak ezagutzen. Niri, ordea, Pegasideek samurtasun handiko bertsoak iradokitzen dizkidate, eta nire izena mundu osoko ahotan dago. Ezta Altzeo berak ere, aberri eta lira lagun, ez dauka nik baino ospe handiagorik, haren ahotsa irmoagoa bada ere.

Gorputzera ez dut aldeko izan, eta edertasuna ukatu dit, baina gorputzaren gabeziak adimenarekin orekatzen ditut. Txikia naiz, baina, nire izenak lur osoa hartzen du; nire handitasuna nire izenak ezartzen du. Ez daukat azal zuria, baina Pertseok ere

³¹ Aurretik aipatu dudan moduan, gutun honen egiletasuna oso eztabaidatua izan da, Safo, berez, ez zelako mitologiako emakumea izan, baizik eta olerkaria. Faonekin maitemindu zela esaten zen, eta hark Siziliara joateko abandonatu zuela. Orduan, Safok, saminak hartuta, Leukadia harritik bota zuen bere burua. Gutuna saminak hartuta dagoen momentu horretan idatzia da, eta bere asmoez hitz egiten du.

³² Garai hartako bi poesia genero alderatzen ditu: elegia eta lirika. Safok lirika landu zuen batez ere, gozamena goresten zuen generoa. Elegia tristeagoa zen, negar egiteko horietakoa, eta gutuna idazten duen momentuari hobeto dagokiolako hori erabiltzen duela esaten du.

³³ Etna Tifoide, hain zuzen Etna sumendia. Suak maitasuna adierazten zuen, eta hemen Ovidiok hiperbolea erabiltzen du, su hori oso indartsua dela adierazteko.

³⁴ Beste erreferentzia bat lirikari; lirikak hausnarketa lasaiaren ondorio izan behar zuen.

Andromeda cefeidea atsegin zuen, aberriaren berezko kolore beltzekoa. Eta, maiz, uso zuriek pikartak estaltzen dituzte, eta txori berdeak³⁵ usapal beltza maite du.

Bere edertasunarengatik merezi zaituenak zurea izan behar badu, bat bera ere ez da zurea izango, ez da inor zurea izango. Baina, nire bertsoak irakurtzen zenituenean, ederra nintzela uste izatera heltzen zinen, eta zin egiten zenuen ni nintzela taxuz hitz egiten zuen bakarra. Nik abesten nizun, ongi gogoratzen dut –maiteminduek dena gogoratzen baitute–, eta abesten nuen bitartean isileko musuak ematen zenizkidan. Hori ere atsegin zenuen nigan; dena atsegin zenuen nigan, eta bereziki maitasuna egiten genuen unea. Inoiz baino atsegin handiagoa ematen zizuten orduan nire sentsualitateak, nire zirkinetik eta jolaserako aproposak ziren esaten nizkizun hitzek, eta, plazerak une berean heltzean bat egiten gintuenean, baretasunak hartzen zituen gure gorputz nekatuak.

Orain Siziliako neskatilak doaz zuregana, harrapakin berriak. Zer daukat nik Lesbosen egitekorik? Siziliarra nahi dut izan. Kanporatu ezazue zuek, Nisoren ondorengo emakume eta errainek, ene alderrai hura! Eta kontuz ibili bere mingain limurtzailearen gezurrekin: orain zuei esaten dizuen guztia aurretik esan dit niri. Zu ere, Erix-eko jainkosa, Siziliako mendietan bizi zarena, zurea naizen heinean, arduratu zaitez zure olerkariatz! Ala Fortuna maltzurak amaierara arte jarraituko du, gogor, hartu zuen bidea?

Sei urte nituen aitaren hezurak, behar baino lehenago hilda, bildu eta malkoekin busti nituenean. Anaia, txirotuta, emagaldu batez maitemindu zen, eta aurreiritziak eta desohorea jasan behar izan zituen. Orain, txirotasunean murgilduta, itsaso urdinean zehar dabil arraun arinekin, eta modu txarrean galduriko ondasunak modu txarrean bilatzen ditu.³⁶ Niri ere muzin egiten dit, aholku on eta zintzo asko eman nizkiolako; hori izan da nire argitasunaren eta hitz onberen saria. Eta estutzen nauten gauza gutxi baleude, ene alabatxoa dago are larritasun gehiago sortzeko. Zu zara nire azkeneko kexen zergatia. Nire ontzia mugitzen duten haizeak ez ditut aldeko.

Ileak lepoaren inguruan ditut, nahasita, eta hatzetan ez daukat bitxi distiratsurik. Jantzi itsusiak ditut soinean, adatsa ez dut urrearekin apaintzen eta ileek ere ez dute arabiarren

³⁵ Papagaia; antzinatean, usapalarekin bikote ederra egiten zuela uste omen zuten.

³⁶ Pirata egin zen.

oparirik. Gaixoa ni, norentzat apainduko naiz? Edo, norentzat saiatuko naiz eder egoten? Nire burua edertzeko zergatia urrun dago.

Biguna da nire bihotza, eta geziek erraz asko erasotzen diote. Beti daukat maiteminduta egoteko zioeren bat: agian, Ahizpek³⁷ ni jaiotzean hala agindu zutelako, eta nire bizitzari ez ziotelako hari gogorrik eman; edo, agian, zaletasunek ohiturak egiten dituztelako, eta Taliak,³⁸ arteen maisuak, izaera maitekorra ematen dit. Harritzekoa al da, biloaren adinak, baita gizon helduek maite dezaketen adinak ere, liluratu nauenean?

Beldur nintzen, Aurora, Zefalo ordezkatzeko lapurtuko ote zenidan! (eta egingo zenukeen, lehenengo bahiketaren gatibu izango ez bazina); Febek, dena ikusten duenak, hura ikusiko balu, Faon ikusiko balu, lozorroa luzatzera behartuko luke.³⁹ Venusek zerura eramango luke bere bolizko gurdian, baina badaki bere Marte kutunak ere atsegin dezakeela.

Ene! Oraindik gizona ez zara, baina mutila jada ere ez, adin egokia; ene! zure garaiaren opari eta ohore handia, zatoz hona kutuna, eta etzan nire magalean! Ez dizut maitatzeko eskatzen, baizik eta nik zu maitatzen uztea.

Idazten dizut, eta malkoek begiak bustitzen dizkidate; ikusi zenbat orban dauden lerro hauetan. Alde egingo zenuela hain argi bazenuen, adeitasun handiagoz egin zenezakeen, eta gutxienez honako hau esan: “Agur, Lesbosko neskatxa”. Ez zenituen nire malkoak eta musuak eraman; eta, hitz batez, ez nintzen ondoren heldu zitzaidan minaren beldur.⁴⁰ Ez dut zugandik ezer gordetzen, ez bada honako irain hau. Zuk ere ez duzu maitalea gogoratzen dizun oroigarrik. Ez nizun aholkurik eman. Eta ez nizun bakar bat ere emango, nitaz ez ahazteko izan ezik.

Inoiz uzten ez nauen zurekiko maitasunaz, eta ene bederatzi musa babesleez, zin egiten dizut luzaro egon nintzela ezin negar eta ezin hitz eginik, ez dakit nor esan zidanean: “badoaz zure pozak”. Ene begiek ez zuten malkorik, eta ene ahoan ez zegoen hitzik, eta hotz izoztuak ene bularra estutzen zuen. Mina nabaria egin zenean, ez nintzen lotsatu eta bularra jo nuen, orroka hasi nintzen, ileak aztoratuta, semearen gorpua prest dagoen txondorrera daraman ama maitaberaren moduan.

³⁷ Parkak.

³⁸ Musetako bat.

³⁹ Ilargia, Febe, Endimion-ez maitemindu zen, eta betiereko lozorroa eragin zion, eragozpenik gabe gozatu ahal izateko.

⁴⁰ Safok ez zuen Faon joango zelako beldurrik izan, Faonek ezer esan gabe alde egin zuelako.

Karaxo, nire anaia, poztu eta adoretu egiten da nire atsekabearekin, nire aurretik dabil aurrera eta atzera, eta atsekabe hori sortzen didan zergatia lotsatzekoa izan dadin esaten dit: “zergatik dago hau atsekabetuta? Bere alaba bizirik dago”. Lotsa eta maitasuna ez doaz bide beretik; jendeak dena ikusten zuen; tunika hautsita, bistan ziren ene bularrak.

Zu zara, Faon, ene ardura, eta ametsetan itzultzen zara nigana, egunak baino argiago diren ametsetan. Han topatzen zaitut, oso urrun zauden arren; baina, ametsetako gozamenak azkarregi iraukitzen dira. Askotan amesten dut nire lepoak zure besoetan atsedean hartzen duela; beste batzuetan, zureak nireetan hartzen duela. Mihiarekin lotzen zenituen musuak antzematen ditut, luze eta estu ematen zenizkidanak. Maiz laztantzen zaitut eta benetakoen antza duten hitzak esaten ditut, eta sentimenduek ahoa esnatzen didate. Ondoren gertatzen dena kontatzeak lotsa ematen dit; baina, gorenera heltzen gara, plazera dago eta ezin dut lehor eutsi. Baina, Titan⁴¹ agertzen denean, eta berarekin bestelako gauza guztiak, deitoratzen dut ametsek hain azkar ihes egin izana. Haitzuloak eta basoa bilatzen ditut, haitzuloek eta basoak lasaituko banindute bezala; hartu nituen atseginen lagun izan ziren. Hara noa, neure onetik aterata, ileak lepoaren inguruan aztoratuta, Enio⁴² izugarriak bultzatuko banindu bezala. Haitzuloak ikusten dituzte nire begiek, eta bertan zintzilik dagoen toba zimurra; niretzat Migdoniako marmolaren modukoa zen. Sarri ohea eskaini zigun basoa aurkitzen dut; itzaltsu, hostotzarekin babestu gintuen basoa. Basoaren eta nire buruaren jabe izan zena, ordea, ez dut aurkitzen. Hark ematen zion balioa.

Niretzat ezaguna zen larre bateko belarra antzeman nuen; gure pisuak zanpatuta zegoen. Etzan nintzen, eta zu egon zinen zatia laztandu nuen; lehen atsegina izandako belarrak malkoak edan zituen. Zuhaitzak ere negarrez ari zirela zirudien, hostoak erortzen zitzaizkien eta. Txoriek ere ez zuten txio gozorik abesten. Daulideko hegaztiak, bakarrik senarraren aurkako mendeku gupidagabea hartu zuen ama saminduak abesten dio Ismariako Itisi. Txoriak Itisi abesten dio, Safok bere maite atsekabezkoiei; gainontzekoa isilik dago, gaueko ordu txikiak izango balira bezala.

Iturburu sakratu bat dago, distiratsua, erreka gardenak baino gardenagoa; askok uste dute jainko bat bizi dela bertan. Gainean loto-lorea hedatzen da, eta berak bakarrik baso bat osatzen du; lurrari belar hazi berriak kolore berdexka ematen dio. Hantxe erortzen

⁴¹ Eguzkia.

⁴² Gerraren jainkosa grekoa.

utzi nuen nire gorputz unatua, negar artean, eta Naiadeetako bat⁴³ agertu zen; nire aurrean gelditu zen eta hauxe esan zidan: “Su bidegabe batek kiskaltzen zaitu, eta Ambraziako eskualdera joan beharko zenuke. Gainalde horretatik, Febok itsaso hura ikusten du bere osotasunean; bertakoeak Akziako itsasoa eta Leukadekoa esaten diote. Bertatik, Deukalioneak, Pirrerekiko maitasunak kiskalita, bere burua bota zuen, eta uretara erori zen, gorputzean zauririk jaso gabe. Une horretan maitasunak alde egin zuen, eta urperatu berri zen bularraldetik ihes egin zuen; Deukalion su hartatik askatu zen. Gaitasun hori dauka toki hark. Zoaz lehenbailehen Leukade garaiera eta harkaitzaren gainetik jauzi egiteko beldurrik ez izan!”.

Gomendioa eman eta gero, bere ahotsarekin batera desagertu zen. Ni, izoztuta, altxatu egin nintzen, eta begiek ezin izan zieten malkoei eutsi. Ene ninfa, joango naiz, eta zuk esandako harkaitza bilatuko dut; doala beldurra, maitasun ero honek menderatuta. Edozer gertatzen dela ere, oraina baino hobea izango da. Euts nazazu, haize leun horrek; nire gorputza arina da gero. Zuk ere, Maitea, erortzean eutsi zure hegoekin behera doanari, nire heriotza Leukade itsasoaren uren errua izan ez dadin.

Ondoren, ene lira eskainiko diot Febori, bion tresna da eta, eta azpiko aldean hitz hauek egongo dira idatzita: “Nik, Safo olerkariak, esker onez eskaintzen dizut nire lira, Febo; ona da niretzat, eta ona da zuretzat ere”. Baina, zergatik joanarazten didazu Akzioko itsasbazterrerara, zuk nahi izanez gero, eraman zintuzten oin iheslari horiekin itzuli ahal zarenean? Leukaderen urak baino osasungarriagoa izan zaitezke niretzat; eta Febo izango zara niretzat, zure edertasunari eta onurari esker. Ala, agian, hiltzen banaiz, ohore moduan har dezakezu nire heriotza, edozein haitz eta olatu baino ankerrago zaren horrek?

Ai! Askoz hobeto batuko litzateke nire bularra zurekin, haitzekin baino! Bular hori goresten zenuen, Faon, eta hainbatetan iruditu zitzaizun inspirazioz josita zegoela. Hitz-etorria izan nahiko nuke orain, baina oinazeak nire artea oztopatzen du, eta ezbeharrek adimena geldiarazten dute. Bertsoak asmatzeko lehen nituen indarrak ez ditut jada; plektroa minak isilarazi du; minak jota, mutu dago lira.

Lesbosko itsasoaren andreak, Lesbosko emazteak eta neskalagunak: nire haizearen lirak egin zituen zuen izenak ospetsu, zuek maitatzeagatik galdu nuen ospe ona; utzi tropelean nire zitarara etortzeari! Faonek lapurtu du lehen atsegin zenutena. Gaixoa ni!

⁴³ Ninfetako bat, alegia.

Gutxigatik ez nion “nire Faon” esan! Ekar ezazue bueltan! Orduan itzuliko da ere zeuen olerkaria. Berak ematen dizkio nire adimenari indarrak, berak kentzen dizkio. Ezer lortzen al dut nire erreguekin? Hunkitzen al da bihotz basatia? Ala, aldaezin jarraitzen du eta Zefiroek eramaten dituzte hitz hutsal hauek? Hitz horiek daramatenek zure belak bueltan ekartzea nahi dut.

Zentzuz jokatuko bazenu, alfer hori, hori egitea komeniko litzaizuke. Baina, etortzekotan bazaude, eta jaierazko eskaintzak prestatzen ari gara zure txoparentzat, zergatik erasaten diozu ene bihotzari berandutze honekin? Askatu ontzia! Venus itsasoan jaiotzen zen, eta aldeko jartzen dio itsasoa maiteminduta dagoenari. Haizeak eramango zaitu. Ontzia askatu baino ez duzu egin behar! Cupido bera txopan egongo da lemazain, eta bere esku gozoekin eraitsiko eta jasoko ditu belak.

Safo pelasgotarrarengandik ihes eginaz pozten bazara, ordea, (eta hala ere ezin izango didazu azaldu zergatik merezi dudan zuk alde egitea) esan iezadazu gutun gupidagabe baten bidez; esan gutun baten bidez, eta zorigaiztoko honek bere patua bilatuko du Leukadeko uretan.

XVII: Helenak Parisi⁴⁴

[Paris, irakurri dudana ez irakurtzeko aukera izan banu, emazte zintzoa izango nintzatekeen oraindik.]

Orain, zure gutunak nire begiak bortxatu ditu, eta ez erantzuteak handitasunik ez duela iruditzen zait. Abegikortasun sakratua lohitzera ausartu zara, atzerritar hori, eta ezkonduetako emakume baten legezko fideltasuna tentatu duzu!

Horretarako hartu zintuen bere portuan Tenaroko lurraldeak itsasoen eta haizeen menpe zeundenean? Gure laguntzari erantzuna halako iraina izateko ireki al genizkizun jauregiaren ateak, zu atzerriko lurralde batetik etorri arren? Modu horretan iritsi zena, apopiloa ala etsaia al zen?

Ziur nago nire gaitzespena, nahiz eta bidezkoa izan, zuri inozoa irudituko zaizula. Ongi dago ni inozoa izatea, lotsa alde batera uzten ez dudan bitartean, eta bizitzaren bidea

⁴⁴ Homeroren Iliadako pertsonaietako bi dira hauek, Troiako Gerra eragin zutenak, hain zuzen. Paris Menelao eta Helenaren etxean apopiloa zen, eta momentu horretan kokatzen dira gutun hau eta aurrekoa. Helena berarekin maitemindu eta Troiara ihes egin zuten. Menelaok emaztea berreskuratu nahi izan zuen, eta hori izan zen zineman hainbatetan ikusi dugun istorioaren *casus belli*. Esan berri dudan moduan eta hasiera-hasieratik ikusten den moduan, Parisek Helenari idatzitako gutunari, *XVI. Heroidari*, erantzuten dio gutun honek, eta, beraz, aurretik aipatu ditudan gutun bikoitz horietako bat da honako hau.

laidorik gabe egiten dudan bitartean. Nahiz eta nire itxura zaputza eta nire aurpegiera behartua ez izan, nahiz eta ni gogorra eta nire bekainak haserrekorrak ez izan, nire ospea orbainik gabe dago, eta orain arte zoriontsua izan naiz, salaketarik jaso gabe eta inongo adulteriogilek ni menderatu gabe.

Ez dut ulertzen, ordea, zerk ematen dizun saiakera hau egiteko ausardia, eta zergatik duzun nire ohean sartzeko itzaropena. Beharbada, Neptunoren semea den heroiak⁴⁵ behin indarrez hartu ninduelako, behin bahitu nindutelako, berriz bahitua izatea merezi dudala uste duzu. Onetsi izan banu, nirea litzateke errua; baina, bahitu ninduen, eta zer egin nezakeen nik, aurka egitea besterik? Berak, ordea, ez zuen lortu ekintza harekin bilatzen zuen saria; beldurra baino ez nuen pairatu. Musu gutxi batzuk baino ez zizkidan lapurtu, nahiz eta nik lotsagabe hari aurre egin nion, bai horixe; hori baino ez zuen lortu nigandik. Zuk, ordea, ez zenukeen horrekin nahikoa izango, zure neurrigabekeria handiegia da eta. Eskerrak jainkoei, hura ez zen zu bezalakoa; kaltegabe itzuli ninduen, eta haren izariak egindakoa arindu zuen; gainera, argi dago gaztetan egindakoa damutzen zaiola. Haren atzetik Paris etortzeko damutu al zen Teseo? Nire izena beti ahoz aho ibiltzeko?

Hala ere, ez naiz haserretuko, erakusten duzun maitasuna benetakoa bada behintzat; nor haserretuko litzateke bera maite duen harekin? Baina, hori ere zalantzatan jartzen dut, ez nire buruan konfiantzarik ez dudalako, edo oso ederra naizela ez dakidalako, baizik eta sineskortasunak kalteak ekartzen dizkielako neskatxei, eta zuen⁴⁶ hitzek sinesgarritasunik ez dutelako.

“Askok egiten dute hoben, eta gutxi dira emazte fidelak”. Baina, zergatik ez ote naiz ba ni salbuespena izango? Agian, nire ama hartu duzu eredu, eta pentsa dezakezu ni ere eror nintekeela; baina nire amaren bekatuan huts bat dago; nire ama irudi faltsu batek engainatu zuen, adulteriogilea luma artean zegoen ezkutatuta.⁴⁷ Nik, aldiz, bekatua egingo banu, dena jakingo nuke, eta ez legoke nire ekintzaren errua arinduko lukeen akatsik. Bera erabat engainatu zuen, eta horri esker arindu zuen bere bekatua; non dago bada kasu honetan nire errua arinduko duen Jupiter hori?

⁴⁵ Teseo.

⁴⁶ Hain zuzen gizonezkoen hitzaz ari da.

⁴⁷ Jupiter beltzarga bilakatu zen Leda, Helenaren ama, engainatzeko.

Harro agertzen zara zure leinuaz, zure arbasoez eta zure errege-tituluez. Leinargia da oso nire etxea ere. Ez dut aipatu nahi Jupiter nire aitagarrebaren birraitona dela, eta Pelope Tantalidearen eta Tindareoren leinu osoa. Ledak, beltzargak engainatu zuenak, Jupiter nire aita egiten du, berak, fidakor, gezurrezko hegaztiari magalean beroa eman ziolako. Tira, hitz egin ezazu orain Frigiako arbaso zaharrez, eta Priamori eta haren Laomedonteri buruz! Errespetu handia diet horiei guztiei; baina, zure osperik handiena zugandik hasita bosgarrena da, eta nire kasuan lehenengoa.

Badakit zure lurraldea erresuma handia dela, baina ez dut uste nireak baino handiagoa denik. Egia da zure lurraldeak aberastasun eta biztanle gehiago dituela, baina egia da ere basatia dela.

Jainkosak konbentzitzeko adinako opari handiak agintzen ditu zure gutun aberatsak, bai horixe. Baina, ahalkearen muga gainditu nahiko banu, zu izango zinateke zergati hobea. Nire ospea betirako orbanik gabe mantenduko dut edo zu jarraituko zaitut, eta ez zure opariak. Arbuiatzen ez baditut ere, opariak beti ongi etorriak dira, eta eskaintzen dituenak ematen die opariei balioa. Balio handiagoa dauka niretzat zuk ni maitatzeak, ni zure nekeen kausa izateak, zure itxaropena itsaso luzeetan zehar etorri izanak.

Mahai atonduaren aurrean, orain egiten dizkidazun keinuak antzematen ditut ere, nahiz eta disimulatzen saiatzen naizen. Batzuetan, lizun hori, begi zirikatzaileekin begiratzen nauzu, eta nireek nekez eusten diote haien jazarpenari. Beste batzuetan, hasperen egiten duzu. Besteetan, nire aldameneko kopa hartu eta nik edan dudak tokitik edaten duzu. Ene! Zenbatetan bidali dizkidazu ezkutuko keinuak hatzekin, zenbatetan ia hitz egiten zuten bekainekin! Askotan senarrak ikusiko zituelako beldur izan naiz, eta behar adina ezkutatuta ez dituzun keinuekin gorritu naiz. Askotan esan diot ahapeka edo marmar batean nire buruari: “Honek ez du inongo lotsarik”. Eta ez nenbilen oker. Mahaiaren bazterrean ere, nire izenaren azpian ardoaz idatzita irakurri dut “maite zaitut”.

Baina, ez nuela sinesten esan nuen begi kontentagaitzekin. Ai ene! Ikasi dut nik ere horrela hitz egiten! Hoben egitekotan, amore emango nuke losintxa horien aurrean; horiekin eskuratu daiteke nire bihotza.

Zuk ere, aitortzen dut, edertasun paregabea duzu, eta ulertzen dut emakumeek zure besoetan egon nahi izatea. Baina, beste bat izan dadila zoriontsu, bekatu gabe, eta ez dezala nire lotsak amore eman maitale kanpotar baten aurrean! Ikas ezazu nire

adibidearekin gauza ederrak ez izaten; atsegin ditugun gauzei uko egitean dago bertutea.⁴⁸

Askok desiratzen dute zuk desiratzen duzuna! Edertasuna antzemateko gai diren begiak dituen bakarra zarela uste al duzu, Paris? Ez dute zure begiek besteenak baino gehiago ikusten; ozar, ausartagoa zara. Ez duzu besteak baino gehiago maitatzen: lotsagabekeria handiagoa duzu.

Ontzi azkarrean etorri izana nahiko nuke nik, nire birjinitatea milaka ezkongaik eskatzen zuten garai hartan. Ikusi izan bazintut, zu izango zinatekeen lehenengoa, eta baita nire senarra ere ados egongo zatekeen. Berandu heldu zara; plazer horiek jabea dute eta zure aurretik bereganatu dituzte. Zure itxaropena ez da garaiz iritsi; zuk nahi duzuna beste batek dauka. Dena den, Troian zure emaztea izatea nahiko banu ere, Menelaok ez nau nire borondatearen kontra atxikitzen.

Utzi bada, mesedez, zure hitzekin ene bihotz biguna asaldatzeari, eta ez minik eman maite duzun horri; hala diozu behintzat. Utz iezadazu zoriak eman didan patua babesten, eta ez hartu nire lotsaren hondar ahalketiak.

Baina, Venusek hitzeman zizula diozu, eta Ida garaiaren haranetan hiru jainkosa agertu zitzaizkizula biluzik. Batek boterea eskaini zizun, besteak gerran irabaztea, eta hirugarrenak honako hau esan omen zizun: “Tindareoren alabaren senar egingo zaitut”. Nekez sinets dezaket jainkosek beren edertasuna zure erabakimenaren menpe jarri zutenik. Eta hori egia izan badaiteke ere, beste zatia asmatu duzu: zure erabakiaren saria izango nintzela dioen zatia, hain zuzen. Ez dut nire gorputza horren estimu handitan, jainkosa baten aburuz saririk hoberena naizela sinesteko. Nire edertasuna asebetetzen da gizakiek miresten badute; Venusen laudorioek, aldiz, mesfidantza sortzen didate.

Ez dut ezeztatuko, ordea; eta laudorio horiek pozten naute, noski. Zergatik ukatu, egia izatea gustatuko litzaidakeenean? Ez haserretu ez sinesteagatik; gauza garrantzitsuak dira sinesten azkenak.

Venusek ni atsegin izana da nire lehenengo poza; bigarrena, zuk sari hoberena nintzela pentsatzea, eta Helenaren ontasuna, entzunez baino ezagutzen ez zenuena, Palas eta Junoren ohoreen aurretik hartzea. Beraz, adorea naiz ni zuretzat? Boterea naiz zuretzat? Burdinazkoa izango nintzatekeen bihotz horretaz maitemindu ez banintz. Argi izan

⁴⁸ Estoikoen araua.

ezazu ez naizela burdinazkoa, baina, zerbait ezin dela nirea izan uste badut, ez maitatzen saiatzen naiz. Zertarako tematu golde makurrarekin hondartza hezea goldatzen eta lurrak kentzen didan itxaropena handitu?

Ez naiz Venusen jokoetan aditua, eta ez dut nire senar fidela inongo amarrurekin engainatu. Jainko-jainkosek ongi dakite! Orain ere, ezkutuko gutun hau bidaltzean, nire hizkiek inoiz ezagutu ez duten lana egiten dute. Zorionekoak horrelako gauzetara ohituta daudenak! Nik ez dakit gauza hauetaz ezer, baina susmatzen dut desleialtasunaren bidea gogorra dela. Beldur horrek ere min egiten dit; denek begiratzen nautela iruditzen zait eta ez arrazoirik gabe; hauteman ditut jendearen txutxu-mutxu maltzurak, eta Etrak⁴⁹ esamesa batzuk kontatu dizkit.

Zuk, aldiz, disimuluan aritu edo amore eman. Baina, zergatik amore eman? Disimula dezakezu. Jarraitu jolasarekin, baina ezkutuan. Menelao ez dagoenez, askatasun handiagoa daukat; ez, ordea, erabatekoa. Urrutira joan da, egoerak halabeharrez eskatzen zuelako; bat-bateko bidaiaren arrazoiak garrantzitsuak eta bidezkoak ziren, edo hala iritzi nuen nik behintzat. Joan edo gelditu ez zekiela ikusi nuenean, esan nion: “Zoaz eta lehenbailehen itzuli”. Iragarpenarekin pozik, musu bat eman zidan, eta esan zidan: “Zaindu etxaldea, etxea eta Troiako apopiloa”. Ia-ia ezin izan nion irribarreari eutsi. Nire buruari eusten saiatzen nintzen bitartean, hau esateko gai izan nintzen bakarrik: “Agindu bezala”.

Azkenean, aldeko haizearekin, Kretara bidean itsasoratu zen. Ez ezazu pentsatu, ordea, guztia dela zilegi. Senarra hemendik urrun dago, baina egon gabe zelatatzen nau. Ez al dakizu erregeen besoak luzeak direla?

Nire ospea ere zama da niretzat; izan ere, zure ahotik zenbat eta laudorio gehiago atera, orduan eta arrazoi gehiago ditu berak beldur izateko. Oraintxe bezala lausengatzen nauen ospeak min egiten dit; hobe zatekeen nola edo hala ospeari itzuri egin izana.

Ez zaitetz harritu, joatean ni hemen zurekin utzi izanaz; nigan konfiantza dauka nire izaerarengatik eta nire jardunagatik. Nire edertasunaren beldur da, baina nire jokamoldean konfiantza dauka; nire zintzotasunean sinesten du, baina nire edertasunak beldurra eragiten dio.

⁴⁹ Teseoren ama; Helenaren esklaboetako bat.

Oparitu diguten denbora eta senar xaloak⁵⁰ utzi digun aukera ez galtzea gomendatzen didazu. Nahi dut, baina beldur naiz ere; nire aldartea ez dago guztiz aldeko oraindik, eta bihotza batera eta bestera daukat zalantza artean. Nire senarra urrun dago, zuk emazterik gabe egiten duzu lo, eta zure edertasunak liluratzen nau eta nireak zu; luzeak dira gauak, eta hitzek bat egin gaituzte jada; eta zu, zorigaiztokoa ni, limurtzailea zara; etxea, aldiz, bakarra. Ez al du, bada, denak hoben egitera gonbidatzen! Hala ere, azaldu ezin dudan beldurrak atxikitzen nau.

Ezin nauzula konbentzitu ikusita, nahiago nuke indarrez behartu ahalko baninduzu! Indarrez uxatu beharko zenukeen nire lotsa. Batzuetan, pairatzen dutenentzat ona da laidoa. Horrela, behintzat, zorionsua izatera egongo nintzateke behartuta.

Egin diezaiogun aurre, baina, hasi berri den maitasunari, hori da eta maitasunari aurre egiteko unerik hoberena. Su egin berria ur zipriztin batzuekin itzaltzen da. Apopiloekin maitemintzea ez da ziurra; apopiloekin batera, batetik bestera doa, eta gauza ezin irmoagorik dagoela uste duzunean, ihes egiten du. Lekuko da Hipsipila, lekuko da Minoide, biak ala biak osatu ez ziren ezkontzekin iseka pairaturikoak.

Zutaz ere halakorik diote; desleial, luzaro maitatu duzun Enone utzi duzula, eta ez duzu ukatu ere egiten. Ez badakizu ere, ni ere tematu naiz zuri buruz dena galdetzen. Gainera, nahiz eta zuk maitasunari irmo eutsi nahi izan, ezin duzu; Frigiarrek zure belak hedatzen dituzte dagoeneko. Hitz egiten dugun bitartean, irrikatzen dugun gaua heltzen den bitartean, aberrira eramango zaituzten haizeak heltzen dira. Haien bidearen erdian, berritasunez jositako gozamenak utziko dituzu; haizeek gure maitasuna eramango dute. Ala, eskatzen didazun moduan, jarraitu egingo dizut, Pergamo handia bisitatuko dut eta Laomedonte handiaren bilobarekin ezkonduko naiz?

Ez ditut ospe hegodunaren aldarriak hainbeste mespretxatzen lurra nire laidoarekin estaltzeko. Zer esango dute nitaz Espartak, zer Akaia osoak, zer Asiako herriek edo zure Troiak? Zer pentsatuko luke Priamok nitaz, zer pentsatuko luke haren emazteak, zer zure anai guztiek eta haien dardanotar emazteek? Zuk ere, nolatan pentsatuko duzu zuri fidela izango naizela? Ez al zara larrituko zurekin erakutsi dudan jokabidearen ondoren? Portu iliakoetara heltzen den kanpotar orok beldur kezkarria eragingo dizu. Zenbatetan esango didazu, zuk zeuk suminduta, “adulterioegile”, nire delituak zurea

⁵⁰ Hori esaten dio Parisek Helenari, XVI. gutunean, Menelaori buruz.

dakarrela ahaztuta? Delituaren gaitzesle eta egile izango zara. Arren eskatzen diot zeruari hori gertatu aurretik lurak nire aurpegia estal dezala!

Baina Troiako aberastasunez eta luxuaz gozatuko dut; hitzeman dizkidazun opariak baino gehiago izango ditut. Purpurak eta ehun ederrak eskainiko dizkidate, bai horixe; hainbeste urre jantziko dut ezin aberatsagoa izango naizela.

Barkatu aitortzea; zure opariak ez dira hainbesterako; lur honek berak atxikitzen nau nolabait. Laidotzen banaute, nork sorotsiko nau Frigiako itsasbazerretan? Non aurkituko ditut anaiak? non aitaren laguntza? Dena promestu zion Jason gezurtiak Medeari. Ez al zuten Medea Esonen jauregitik bota? Ez zegoen han Eetes harengana hisiaz itzuli ahal izateko, ez zegoen ama, Idia, ezta ahizpa Kaltziope. Ez naiz horren beldur, baina Medea ere ez zen beldur: askotan augurio onekin engainatzen du itxaropenak bere burua. Onartuko duzu orain itsasoan kulunkan dabiltzan ontziek itsasoa aldeko zutela itsasoratu zirenean.

Zure amak zu erditzeko bezperan amestu zuenak ere ikaratzen nau: odolez zikindutako zuzi hark. Aztien iragarpenen beldur naiz ere, esan baitzuten Pelasgoko suak Ilion kiskaliko zuela.

Eta Ziterea aldeko izango duzu, zure erabakiari esker trofeo bikoitza duelako. Baina, esaten duzuna egia bada, galdu zuten beste bien beldur naiz ere. Ziur nago, nik zu jarraitzekotan, gerra piztuko dela. Ai ene, gure afera ezpata artean ibiliko da.

Hipodamiak, Atraxeko alabak, gerlari hemoniarrak behartu al zituen Zentauroei gerra basatia egitera? Uste al duzu, bidezko haserre bizian, luze beharko dutela Menelaok eta nire anaiek, Bikiek eta Tindareok?

Balentria adoretsez harro bazaude ere, zure edertasuna ez dator zure hitzekin bat. Zure gorputza Venusentzat dago eginda eta ez horrenbeste Marterentzat.⁵¹ Adoretzuek egin dezatela gerra; zuk, Paris, maite beti! Eskatu Hektorri, goستن duzun horri, zure orde z borrokatzeko; zure indarrak bestelako gerra baterako dira.

Baliatuko nituzke nik indar horiek, zertan ari naizen jakingo banu eta kemen handiagoa izango banu; zertan ari den dakien beste neskatxa batek aurre hartuko du. Ala, agian,

⁵¹ Venus maitasunaren metonimia da; Marte, gerrarena.

zentzuz jokatuko dut, ahalkea alde batera utzi, eta, abaguneak menderatuta, zure eskuekin lotuko ditut nireak.

Eskatzen duzunari dagokionez, aurrez aurre hitz egitea, ongi dakit zer nahi duzun eta zeri esaten diozun zuk “hitz egitea”. Azkarregi zoaz, eta uzta ernamuindu baino ez da egin. Agian, berandutze hori zure gurarien aldeko da.

Ez dut gehiago idatziko. Geldi dadila hemen nire hizkien ezkutuko lana, nire pentsamenduen sopikun, nire eskua nekatuta dago eta. Gainontzekoa Klimene eta Etra nire neskame eta aholkulari onen bitartez hitz egingo dugu.

Bibliografia

BILBAO, Gidor, 2002, [Latin-literaturarako sarbidea. Idazleak eta idazlanak](#), Bilbo: UEU.

BORNECQUE, Henri & Marcel Prévost, 1965, *Ovide. Héroïdes*, Paris: Les Belles Lettres.

CRISTÓBAL, Vicente, 1994, *Ovidio. Heroidas*, Madril: Alianza Editorial.

CRISTÓBAL, Vicente, 1994, *Ovidio. Heroidas*, Madril: Alianza Editorial.

EUSKALTZAINDIA, 2015, 76. Araua: latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia. Arau osatua, eguneratua eta emendatua, Euskaltzaindia. Online: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0076.pdf.

MOYA DEL BAÑO, Francisca, 1986, *Ovidio. Heroidas*, Salamanca & Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

PÉREZ VEGA, Ana, 1994, *Ovidio. Cartas de las heroínas. Ibis*, Madril: Editorial Gredos.

SHOWERMAN, Grant, 1977 (=1914), [Ovid. Heroides. Amores](#), Cambridge, MA: Loeb Classical Library, Harvard University Press.